



## TREBAKUNTZA 2012/05: DAGOENEKO/HONEZKERO

Sarri askotan nahastu egiten ditugu *dagoeneko* eta *honezkero*. Hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak ez dute zertan gaizki egon, baina badago esaldi horiek hobeto idazterik.

### OHIKO AKATSAK

1. *\*Berandu izango da deialdia aldatzeko, honezkero batzordekide guztiei bidali baitizkiegu gutunak.*
2. *\*Dagoeneko udaletxea itxita egongo da, aspaldi amaitu baita bilera.*
3. *\*Obra horri buruzko erabakia hartuta dago honezkero, aho batez, gainera.*
4. *\*Lanean hasita egongo da dagoeneko, aspalditxo lortu zuen plaza eta.*
5. *\*Uste dut dagoeneko udaltzainak istripua gertatu den tokian egongo direla.*

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

**Honezkero:** ziurtatu gabeko ustea adierazten du:

Zazpiak dira: **honezkero** etxean izango da (*etxean dagoela **uste** dugu*).

**Dagoeneko:** zerbait egiaztatua adierazten du, kontu jakina da:

**Dagoeneko** heldu da lanera: oraintxe bertan jaso dut haren mezu bat ordenagailuan.

Iraganaz ari bagara, hobe **ordurako:**

Zazpitan deitu nion bulegora, baina **ordurako** etxerako bidean zegoen.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

1. Ad. Berandu izango da deialdia aldatzeko, **dagoeneko** batzordekide guztiei bidali baitizkiegu gutunak.
2. Ad. **Honezker** udaletxea itxita egongo da, aspaldi amaitu baita bilera.
3. Ad. Obra horri buruzko erabakia hartuta dago **dagoeneko**, aho batez, gainera.
4. Ad. Lanean hasita egongo da **honezker**, aspalditxo lortu zuen plaza eta.
5. Ad. Uste dut **honezker** udaltzainak istripua gertatu den tokian egongo direla.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Hurrengora arte!

.

**Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea**

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99